

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure balio proposamena, banaketa kanalak, bezeroekiko harremanak eta diru-sarrera iturriak garatzeko, hainbat funtsezko jarduera behar ditugu.

Gure produktu guztiek beste enpresetatik desberdintzeko diseinu berezi bat izango dute. Produktua zein den kontuan izanik, diseinu ezberdina izango du, hau da, ogia duten produktuek, gure logoa bertan inskribaturik izango dute eta patata frijituak, kroketak... forma berezia izango dute. Horrela, erakargarriagoak izango dira gure produktuak eta jende gehiagok kontsumitzea lortuko dugu.

Marka hau burdinezko makina berezi batekin egingo du sukaldariak. Egunero, goizean goiz, ogia egitera joango da, masa egin, forma eman, marka jarri eta labean sartuko du. Goizero, egun osoko ogia prest utziko du eta pixkanaka beharren arabera labean sartzen joango da bezeroek ogi bero egin berria jan ahal izateko.



Mcbaxerriko produktu guztiak, baserrian bertan ekoiztuko dira. Lehengaiak, herriko azokan erosiko ditugu eta haiek ondoren, gure baserrian landatu eta bertan hereingo ditugu jatetxe ondoko baratzean.

Animaliei dagokienez, jatetxea martxan jartzeko, guk lehenagotik baserrian ditugun animalia, hau da, behi, ardi, oilo... eta gure lagun Pakori eskatutakoekin beteko dugu gure ukulu eta zelaia beharko ditugun elikagaiak lortzeko. Horrela, gure bezeroei

produktu ekologikoak, hau da, jabetxean bertan eginak eskainiko dizkiegu eta modu horretan haiek osasuntsu jango dute.

Lehen, baserri arrunt bat zenez, animalia gutxi genituen orain edukiko ditugunekin alderatuz. Garai hartan, gure familia elikatzeko erabiltzen genituen animaliak baina inguruko etxeetatik ere produktu bila etortzen ziren .

Jatetxea abian jartzeko beharrezkoa ikusi genuen animalia kopuru handiagoa behar genuela. Horretarako, lehen aipatutako gure lagun baserriar Pakori eskatu genizkion animalia gehiago eta hauek asko zirenez, ukulua handitu behar izan genuen eta horretarako 1.000 euro hartu genituen gure aurrezkietatik, badakigulako gure enpresak irabaziak emango dizkigula eta diru kopuru hori berreskuratuko dugula.

Animaliei daagokienez, orain ditugun animaliak pixkanaka beharren arabera hilko ditugu eta berriak jaiotzeko egingo dugu aurrera, gure produktu asko egiteko animalien haragia erabiliko dugulako.

Hori horrela, gure produktuak naturalak eta guk ekoitziak izango direnez, oso osasuntsu jaten ez dutenei lagunduko diegu.

Gaur egun gizartean dagoen arazo larri bat elikagaien kalitatea eta hauek ekartzen dituzten ondorio larriak dira. Azken urteetan, gizartearen zati handi bat gaizki elikatu da eta horrek osasunari kalte egiten dio. Horren arrazoietakoa bat gure enpresaren antzeko enpresek sortutako arazoa da. Hau da, hauek kalitate txarreko janari azkarra eskaintzen dute eta merkea denez, jende askok egunerokotasunean kontsumitzen du. Badakigu, gure enpresak ez diola munduko populazio guztiari eragingo, eta guk ez diogula arazo honi konponbidea aurkituko kalitate oneko elikagaiak saltzen, baina hala eta guztiz ere, gure zatitxo jarri nahi genuen arazo honetan. Izan ere, gure amona Manolik izan zuen gaixotasuna gai honekin zuzen-zuzenean lotuta dago, hau da, gaur egun gizartean dagoen arazo hau guk gertutasunean bizi izan dugu. Gure amona Manoli, gure amaren ama, hau da, Hirian bizi zen amona, gaztea zenean diru gutxiko familia batean bizi zen eta senide ugariako familia zenez, ez zuen asko jateko aukera izaten. Horregatik, gure

aitonarekin ezkondu eta honek zuen diruarekin behar zuena baino gehiago jaten hasi zen. Ez zituen baserriko elikagai osasuntsuak jaten, gozoa asko gustatzen zitzaion eta pixkanaka gizentzen hasi zen, gaixotu eta hil arte eta arazo honengatik hasi ginen jatetxe bat sortzeko ideiarekin.